



Tema 5. Ahotsaren ezaugarriak

5. Gaia

Ahotsaren ezaugarriak



Mendiguren, Terese; Agirreazkuenaga, Irati; Marauri, Iñigo. OCW INFORMAZIO LOKUZIOA 2021

Ahotsaren ezaugarriak, beste edozein soinurenak bezala, lau dira:

- Intentsitatea
- Iraupena
- Tonua
- Tinbrea

1. Intentsitatea

Airea kanporatzen dugun indarraren araberakoa da, beraz, arnasketa-mekanismoarekin lotuta dago:

- Indarra edo potentzia da
- Ahots-korden bibrazioaren zabalera baldintzatzen du
- Dezibeletan neurtzen da

2. Iraupena

Ahotsa existitu ahal izateko iraunpen bat izan behar du. Alde horretatik, kanporatzen dugun aire-kopuruaren arabera da iraupen hori:

- Testuinguruaren arabera neurtzen da
- Segundo, minutu eta ordutan neur dezakegu ahozko diskurtsoa. Baina fonema edo hitz baten iraupena neur dezakegu ere artikulazio-ariketa batean

3. Tonua

Ahotsaren altuera da (tonu eskalan). Funtsean, fonazio-mekanismoarekin lotzen da:

- Bibrazio-kopuruaren araberakoa da
- Hertziotan neurtzen da
- Ahots-korden luzerak eta lodierak eragina du
- Emozioak ondoen transmititzen dituen ezaugarria da

4. Tinbrea

Ezaugarri honi esker, pertsona bat beste batengandik bereiztu dezakegu ahotsaren entzute hutsarekin.

- Ahotsaren nortasuna
- "Ahotsaren kolorea" ere esaten zaio
- Gure artikulazio-organoen formaren araberakoa da, baina baita ahots-hezkuntzaren araberakoa ere (adibidez, sudur-tinbre bat eduki daiteke testuinguru/familiaren eraginagatik).